

Herri ipuinak eta mitologia ardatz 2015eko Literatur Topaketan

2015/04/24

Sutondoko ipuinak lelopean, Literatur Topaketa egingo da, maiatzaren 13an, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Aurtengo edizioan, herri ipuinen eta mitologiaren gaia landuko dute. Antolatzaileen ustetan, garrantzikoa da irakasle ikasketak egiten dihardutenek euskal ipuinak eta mitologia ezagutzea, besteak beste, etorkizunean gai izan daitezen euskal kulturaren transmisioan eragiteko.



Edorta Jimenez, Jesus Mari Olaizola, Anuntxi Arana eta Koldo Izagirre.



Berritasun ugarirekin dator 2015eko edizioa. Batetik, hitzaldiak eta ipuin kontaketa tartekatuko dituzte egunean zehar. Hala, hitzaldiak emango dituzte Jesus Mari Olaizola *Txilikuk* eta Anuntxi Aranak, berriz, ipuinak kontatzera etorriko dira Koldo Izagirre eta Edorta Jimenez idazleak. Idazle horiek, hurrenez hurren, mendialdeko eta itsasaldeko ipuinak kontatuko dituzte. Bestetik, fakultateko ikasleek protagonismo handia hartuko dute aurtengo ekitaldietan. Esaterako, goizean zehar, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleek zenbait bideo erakutsiko dituzte; arratsaldean, berriz, atzeritik gurera etorritako Erasmus ikasleek euren herrietako ipuinak kontatuko dituzte. Horretaz gain, Lehen Hezkuntza graduko 3. mailako ikasleek

pertsonaia mitologikoen inguruko erakusketa prestatuko dute.

Literatur Topaketa Eskoriatzan egingo da, Zaldibar udal aretoan eta Eskoriatzako campusean. Jardunaldia irekia da eta sarrera debaldekoa.

Egitaraua

Goizeko saioa: Zaldibar udal aretoan (Eskoriatza)

09:00-9:15: Literatur Topaketari ongi-etorria sutondoan

09:15-10:15: Jesus Mari Olaizola Txilikuren hitzaldia: "Kontaktaren plazera"

10:15-10:45: Koldo Izagirrerren ipuin kontaketa: "Baztango lanbroa"

10:45-11:15 Atsedena

11:15-12:15: Anuntxi Aranaren hitzaldia: "Anbotoko Dama, deabru ala goiandere?"

12:15-12:45: Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleen bideo emanaldia: "Kontatu irudiz"

Arratsaldeko saioa: Eskoriatzako campusean

14:30-14:45: Ongi-etorria bazkalosteko naufragiora

14:45-15:15: Edorta Jimenezzen ipuin kontaketa: "Naufragoa eta kupela"

15:15-15:45: Erasmus ikasleen ipuin kontaketa: "Long ago in a land far, far away..."